

Gurutzeko Juan Deuna Idazle

Santu-maillan erpiñeraino iritxiak ditugun gizaki doatsuak ere, gu bezela, ezur ta aragi izanak dira ziurrik asko. Baita Gurutzeko Joan deuna ere. Kondairak dioskunez, gorputz tipi genun, baiña zatiak oro egoki ta oiñean zeuzkana; bere soñari nibat ildura, zigorraldi ta astindu arrazo zizkion arren, etzun esateko geixorik izan bizitz-egunak zear.

Arima bikain bat ere ba-zun gorputz arren bizi-kemen, eta suen artean olako kidetasun zoragarria. Joan Gurutzekoa, beraz, eredu jator dugu barne-bizitzarako, txit garrantzitsu nai andik nai errendik, edozein erretze begiratuta. Gogo-almen eta zentzunak indar ekurutsuz ornituak zeuzkan nunbait, eta, norbaiten aiurri ta izakera auek dagiten ezker, setaz ere bikainenetarikoa dugula esan bear. Xamur, baiña ez hildurti; gogo, baiña sendotasunean tinko; biozti ta noizka uo jaikia, olermenaren argi-aldietan bidez ere.

Ezaguerari dagokio ederra, ta sentzuetan begiz ta belarriz jasotzen dugu geienbat, auek baitira eder-zentzunik berezienak. Joan Gurutzekoak, berriz, zein ikusmena zein entzumena, biak zeuzkan zorrotz-zatiak; idatzirik utzi zizkigun liburuetan parra-parra erolanda daurkizkigun iduri bizi ta eragilleak, dauzmen ernea adierazten digute noski, erretzen zolia ere bai olerki-ahapaldietan, berken-bukatze oskidetsuak eta itz-esaketa zuzotasun berdingeak. Eta luma artu ta bizi biltzean etzun besterik egin barne bizi baiño; beraz, barrenkoia dugu Joan Gurutzekoaren jakinkizuna; orobat bere eldortz ta olertia ere.

Naiz-ta gorputzez osasuntsu, etzan luzaro bizi izan, berrogeta bederatzi urtefau il bait-zitzaigun. Idazle bezela ere ez dugu epe luzean jarduna, etzun bada olako presa aundirik izan bere uste ta biozkadak argitara emateko; bizi-beharrak nola eskatu alau ustuzigun biotza, beti lasai ta gizonki. Beraz genun asmotsu ta antzelari, baitik-bat olerki-barrutian; eta bide ortatik jokatu bear zuela uste genezake, berezko jir, oldar ta jor-rari amor egiñik; baiña etzan ortara mar-kirtu. Jainko-maitasuna ta lagun-urkoarekiko garra izan zitun zio ta zuzpergarri bere idazti jainkozkoak osatzeko. Etzun beste asmorik erabili.

Goiz illun batean, barruko aitu-erriak zizala bitarteko, Toledo'ko karmeldar karmel-tuan morroillo ipiñi zuten, ondo zainduz 1578'garrena zan, eta ogei ta amasei urte zituan praille gazteak. Teres Amarekin batera, karmeldar Lagundia berriazatu nai zun; baiña au etzuten danak begi onez ikusten.

Soñez asko eraman bearrean ere, gizon garatua zegoen, bai adimenez bai biotz-ondoz. Eta, ain zuzen ere, orduantxe asi zan, gela itu batean illunetan zegolarik, bere barren oiñazetua usten; lendik ere olako nolku ta eskutiz eta bestelako orritoren batzuk idatziaz zitun arren, espetze zurbil artan agertu zitzaigun idazle, olerkari; eta antzelari. Antxe asi zun bere *Barne-kanta*, maite-kanta esti samurra, olerki liriku zahar-korra; antxe idatzi zitun ogei ta amargarren ahapaldirañokoak, gero Baeza'n eta Granada'n osatu zitun arren besteak.

Geroago idatziaz dira *Karmel-mendiaren Igoera*, *Gau illuna ta Maite-sugar bizi*, *Mistika-gaiez*, Jainko ta arimaren arteko ereman ixillak azaltzen ditun jakinkizun izentuz lillurazitako lau liburuak, oso ederki eratu ta tainturik utzi zizkigun, bidez ere *Barne-kanta ta Maite-sugar bizi*.

Ixillezko jakite ontan maillaz igorik dor arima, epeka bezela; bidean ba-ditu zergarbitu ta erabateko zoztorrak; mendi gaineko aize liguonetan murgil, atsedean artzera orduko miñaren miñez, gau zurbillean, orotzean, gorriak ikusi bear ditu gaixoak. Ala ere, ekaitz zirimoltsu ostean eguzkiak dirdir egin oi du; berdin gertatuko zuio arimari ere, nekezko gau beltzean zear Maitea zidaukan Karmel mendiaren tontor argitsua iritzioko baita.

Lau liburuotatik lenengoari *Karmel Mendira Igoera* deritza; ta irudikizun baten biltzen du Joan Gurutzekoak bere irakaskintza osoa. Gure arimea Jainkoak sortua da, Berdu beraz elburu ta muga, bai orain bai gero; arimeak zoriona opa du, ta egiatko zoriona Jainkoarekin, elburuarekin batuta bizi izatea noski; zorionik jator ta irankorrena lortzeko, barne-osotasuna egin ta Jainkoarekin alkartu bear. Batasun ori iritzi-teko, ordea, arima garbitu bear dugu gurrako bidean zoztor ta Jainkoarekiko kalte-

gari zaion orotik. Au eskuratzeko bideak? Lenon, buru ukapen osozkoaren bitartez, zentzunak beuren ingurumariko zer guztien lege-esipe arautuan sartu; ta, ondoren, lortasun deun-deunaren galtzarrean igeri, sibilomen, itzarokizun eta maitasunezko jardun gogo atertu gabean aritu.

Iru zatitan banatuta daukagu idazti osoa. 1) *Lenengoak* arimea gertatzen du Karmel mendirako len-maillak igotzeko, au da, bizi-erretzearen ezutu zear igotzen asteko. Nola? 2) *Bigarrenak* len-maillak igotzeko, au da, bizi-erretzearen ezutu zear igotzen asteko. Nola? 3) *Irugarrenak*, azkenez, beste aintzesteko dago *oroimen* eta *naimenarekin*, garbitu ta utsitu landako zer guztitik, eta bidez bidez itxaro ta maitasunez ase-bete.

Orpoz-orpo datorren bigarren liburuari *Gau illuna* deritza; eta lenengoaren edo *Karmel Mendira Igoera*'ren jarraipena dala aipatu genezake. An arima bera ari zan barregarbiketako lanean; emen arimak baiño er lan geiago dago Jainkoak, laster emazte zango duen arima akats eta orban guztietatik garbitu ta elurra bezin zuri bihurtzen. Bi zati ditu liburu onek ere. Gau illunean bitza oraindiñokarren arima gaixoa, zentzun gogo gau illunean. Beraz, lenbiziko zatia *erretzearen gau illuna* deritza, ta *gogorrena* *igogarenari*. Eta auxe da, egi-egiaz, gure Santua ain ospetsu egin duen mistika irakaskintza.

Len, igoeran, bidexka izkutua zear goramta zijoalarik, guda gorrian ikusi genun arima, bere baitan ditun izatezko joera ta garramora gaiztoen aurka; kanpotiko burruka an geienik, edo beintzat azal samarekoa, arime-mamiraino osorik eltzen etzana nunbait. Oraingoa, berriz, barrukoagoa dugu; gogo bere izatearen zokorik barruko ta ixilenean bildu ta antxe daurkigu gudu bizian, lo obeki, Jainkoaren esku mende, ikuzleatzen eskuetan zapia bezela, alegia. Ontan, Joan deunak, suak ozka dagion gurrak dakarkigu gogora. Oni lenbizikoz kea

dario, ezerik baitago; pixkaka galdatuz doa, ta azkenik gori-gori itzultzen; osoro garbituz gero, ez du kerik ere ematen. Onelaxe, gau illuneko arrago bizi ontan, gertatu oi ditu Jainkoak berarekin bat-egin eta alkartu nai ditun arimak. Arimeak ez dago deusik, Jainkoak garbitzen du, Bere begiraldi gogoaren zizta indartsuz. Gau aizarotsu ontan Jainkoak dama, arimeak artu.

Gizakiak giza-erara egin oi du, baita artu ere; Jainkoarekin biltzeko, baiña, nolabaiteko Jainkotankera artu bear, eta au eziña dugu aurretik garbitu ta araztu ezik. Eraberritze au latz bezin neketsu izan, antza, gau itsuan barne-min, atsekabe, oiñaze ta eiagoraz egiten dana.

Lenengo zatiak zentzun-garbiketara azaltzen digu bereziki, kanpotiko sumagarri aldetik nabaitzen diran ondorenak. Bigarrenan, osteran, barne-barneraino doa; gogo utsaren zokoraino barrendu ta arimea, zentzun-eragin ta ekin naasi ta kanpar gabe, lasai ta eder igi dagian azpi-zokorik ixillena arakatzen du, eta gizonki arakata ere, gure mistiku garaiak.

Alan eta guzti ere, orrako gau beltz ori ez da betikoa; gau ondoren eguna dator, ekaitz ostean ezialdia. Izadiko lege, Berdin arimen barrutian ere; oiñaze ta neke-lorrak bukatzean, zorapenezko argiak dirdir; eta aurretik igazi diran naigabeen izpirik ere ez dugu ikuskatzen, ondorengo zauskada gogoen ezia miatzaturik. Lengo lorra utsal dirudigu orain.

Gaztelar Santuaren *Igoera* ta *Gaua* naigabezko poemak dira; eraso ta eutsi, burruka gordinean. Baiña miñaren miñezko ekite latz ori ez du berezko elburu, Jainkoarekin alkartzeko bide baizik. Etzitan, egia esan, osorik amaituta utzi Gau illuna deritzan liburu ontako bi zatiak. Zortzi ahapaldi ditu poema onek, eta etzitan azaldu bi baizik; zortziren azalkizuna egin ba'lu, etzun arima ziurrik asko gau beltzeko aitzulo ortatik argitara gabe utziko. Orrela dio, bederen, azken-ahapaldian:

*Lotu nintzan, aitzua,
Maiteagan nengon burua makur;
etzan ezer, ni lasai,
nere kezkek utzirik,
lilien artean arras aantzirik.*

Ez, Gurutzeko Joan deunak —Karmeldar Lagundia len-erara bihurtu zuten gizaki gotorak— ez du ezer ere erdizka ta urgu bezela uzten. Or duzu *Barne-kanta*, maite, zehai sutsua, munduko literatur kondairan ezagutzen danik eta olerki lirikurik ederrenetarikoa. Or argi oro, poz eta atsegio: argi-beltz eta odoi ikaragarriak; gogorra, txit neketsua izan da gora-bidea, baiña or arain arima aratza mendi-gaillur dirdaiteuan, Jainkorko argitan hlei-hlei.

Maite-kanta ontan arimak eta Kristok, alkar-izketa lillurakorrez, beuren harren-minak oiukatzen ditute, xamur ta giar. Ez arik ez onek, ez du kezkarik; ezereu arreta edo azolik baldin ba'dute, maiteminduek izan oi ditutenak dira, maitasunak dakarazkietan min ta zauri goxoak, gogo-muina xamurtasunaz urtua uzten dituenetarikoa. Lenengo ahapaldietan, gorde ta agiri, kukuka dabil-tza jolas-zurrean; gero, bertso-kantu garai-tuenakin, alkarren arteko edor ta doaiak abesten ditute; eta, atzenoa, alkarri ito-ema-te goxo ta ezkontza ostena, arima ta Kristo'ren arteko ezkontza, bi maitaleen arteko gurari, uisi ta nalezko hategite zozagarria. Arima Emazteak ez du nai emen, Kristo ber-ro Senarrak nai duna edo nai ez duna balzik; onekero, bata-bestearenak dira alkar-amate izil zaramenezkoan.

Onela amaitzen da zerutar kantu ori, lotretsu, argi ta sentimentuz betea. Baiña, gero zer ote? Zer gertatzen ote alkar-batasun ortan? Nolako bizimodu daramate bi maitaleak? Arimak ez du beste arazorik, begiratu goxo etengabean Maitea ikusi ta maite izatea baiña. Izil utzeko eguitza barnekoian bi zorakortu. Kristok, ikutu biguñez, gero ta geiago pistazi ta azkortzen du bere Emazte arima. Eta maite-bizitz ori ere ezin utzi inolaz karmeldar Olerkariak —berak hizik-ikasia noski— adierazi gabe. Ortarako beste poema bat idatzi zuz; *Maite-sugar bizi*; labor ta jori. Arek hai azaltzen ditula ederki arimaren barru-azpen, zanakada ta zirrara esangaitzak! Hletti antzo, irazekia dirudi arima Jainko-maitezko su goritan; eiago-ra ta asperenka dager, maite-labean murgil. Butean iru dan Jainkoak erretzen du bere altzo uler-ezinean. Eta, ala ere, oraindikau lurrezko soin-barruan esiturik bere burua ikusi ta zeru-dirdira zelanbait dastaturik, ez du bizi nai geiago; eriotza opa du, te alar deskaio Jaunari. Onako zerbait kantatu zuz

beñola gure olerkari gartu batek, ahapaldi au osatzen:

Hilik baizen ezin bizi, hau da bada zortu. Eta oraino bizi behar, hortaz, o dolorez. Ezin-bilak ene baitan ala baidu lusatzen. O beriotze maitea, zerk hau harla beran.

(Milla muskal olerki eder, 147)

Onetxek dira Gurutzeko Joan deunaren lau liburuak. Bigarrena, au da, *Gau Zuzen* bukatu gabe zeukan Jainkoak berera etortzen zunean. Beste irurak egin-egitak dira, maitika-gaiez kuin-kuin. *Igoeran* eta *Gau Zuzen* zortzi ahapaldiko olerkia bera azaltzen du, baiña ahapaldi bi bakarrik, besteak ta malez ikutu gabe utzi zizkigun. *Barne-kanta* ta *Maite-sugar bizi*, hai bertso hai azalpen ederki egin eta hiribildurik daukagu, arima barne-zaleen goxogarri.

Aipatuetatik iru saietas utzirik, orain ta gorkion bereziki ta labor *Barne-kanta* poemari.

Olerki lirikar ederra noski, munduko kuntzetan danik hikainenetakoa sakara utziz. Egilleak etzion eresi oni olako apartekorik ezarri, geroagokoa baita *Maite-loto*, *Barne-kanta* (*Cantico Espiritual*) dalako izen ori. An Toledo'ko plaza zorian atxilo zegolarik, gau illunetan, berak maite zanak utzita bezela, Jainko-maitasun gozoz mozkor, deadar-oiu gorri dugu.

Nora jun zara, Maite,
ni emen lagarik min-garruiko?
Orain antzera zoz
iges ni zauriturik;
emen nazu ileiez, ta Zu gorleka.

Edu ontakoa dugu-len-lerrotik azkero-ñoko guztian, txinpartaka egiña, arima ta Kristo'ren arteko jardun betea. Eta ta gero edozein arima; Joan deuna orrela arima mindurik zegoen Toledo'ko baitegian, ahapaldi kartuetan josita, irarria dardatzen emen bere harne-giro osoa. Eain deunak bere-mailla oberik idoro, bere harne-giroa Jainko-zama aztatu ta neurtsako poema dugu ta ezti-jariozko au baiña.

Ba-dakigu nola azten dan rogata, egiñaren berotz ta lurraren ezotasunak lagunduta. Maitasunean ere berdintsu jatu oi da

Gurutzeko Joan deunaren kanta ontan ere aiaz doa arimek, maitasunean aurreratu ta azalduz; eta azi-goratze ortan, zidor-egale-tan olako oroigailu batzuk uzten ditu, arri-tan mozkor antzera. Zer ote? Arimeak Maitea-antzik artutako dozi ta oatasunak, egin dizkion adierazpen arrigarriak, ezaguera ta maitasunezkoak: Ikustaldi, mesede, elhiste, zauri, maite-ikutu ta abar. Oien hidez, arimeak gorantzta dagi, mendi ezkutuko maitalei gora, au goiko erpiñean ospatuko dan zortuzta pozgarri betikora iritxi arte. Lapantza suak emagai sendo ditu arimeak.

Biotz maite diranak alkar ikusten dute, albat eta sarrien. Kristok ikustaldi atsegin-gerriekin alaitzen eta su-pistotzen du arimek. Ba-daki onek nor duu ta zer dugu; eta ezagueran areagotuz diosu maitasuna bizi ta irazekiagoa izan oi da, epea ta naitzabeak bezela. Augaitik, poema erdiruntz, olako norgegiagoka bat asten da bien artean, tait goxo ta jaikia; alkar-izketa zuzpergarria noski, olerki antzertuaren azal-gairik arduratuena.

Aia ere, ahapaldi lakoitza ez duzu maitale-mailla edo arimeak bere gora-bidean dagan urrats bat geiago. Ez da ainbesteko osatzenik. Joan Gurutzekoak ez zuen olako hibe berdin joate antzerik asmatu; aren olermen-indarrak eta irudikizunak, maiz, arimek maite-maillatan haiño urrutiago diruz.

Dana dala, poema osoa begiz jorik, host epe bezela zenbatu genitzake, batasunaren murrizte aundi harik. Barreneko hibe ori ez dugu aldioro berdin doana, etengabe ta jarraitza. Gogoak bere Maitearekin burutzen dan kondaira ontan ha-dira uneño batzuk besteak baiña garaiagoak, eta auetan ere baiña beste batzuk ain ondo berezi ta bantatu lagrak, olako tarte luze-labur mugatuek. Olerkariak, jakina, ez digu egunik zuzen bere barne-bizitzaren edestia erazi; li-par gordiñenak, bai, adierazi dizkigu alegi jartu gotez, Jainkoarengana irixteko emen bear ditugun urrats eredu-garrienak begi aurrean (pistirik. Une batetik besterako ori geienik ez da aitatzen, olerkariak ez dio arrantzik ematen. Noizpeitaka, ezarrian-azarian, igarri gabe, goiraño igna daukigu. Nola eta nola igoa? Ezin ba asmatu. Ahapaldi bat beraren har-zuan ere gerta oi da maitale giro-aldatzea.

Ora, atzenoz, host epe edo arotan *Barne-kanta* osoaren guna, ahapaldia ahapaldi.

1) *Maitearen billa* (1-12).—Zerbait gertatzen daucan, toki berezi baten gertatzen omen. Ortik gogotan darabilgun unai-kanta onek ere ba-du bere gertaleku emana. Nun ote? Leubiziko irudiak ez du ezer oso mugaturik. Arima maitez minduari Maitea gorde, ezkutatu edo or unibait sartu zaijo. Nun, orlea? Ez daki, albotik urrutiratu zaiola daki bakar-bakarrik; Maiteak iges. Ta au biltatu bear du maiteaz. Olerkariak ertz ta mugaz esitu du tokia, irudikizun eta alegi oi ez lakoz esitu ere. Ta emen daukagu poema osoaren matasa mugatua, inguratua; ba-dakigu nun gertatzen dan. Maitea ostendu egin zaijo arimari, baiña ba-daki gutxi-gorabera nun dagan gorlerik. Billatzeko ba-ditu bide batzuk; aztarnak utzi ditu Maiteak igesari ematerakoan, aztarnak «mendi ta ibarretan», aztarnak «muñño ta mugetan», aztarnak «zuaisti, zela, sarobe ta larretan». Lorratzak or ta emen...

Arrapaladan doa arima Maitearen billa, oni ta ari galdezka. Antsiz eta negarrez mendi ta muna zear; eta ez da arritzekoa, zauritua bai dabil. Iraizean bezela agertu ta iges egin dio Maiteak. Eta Olerkariak hai txaro ta margo biziz apaindu billa-irtetze au, idazkera arin, egoki ta neurritzotan! Uin antzo, bata bestearen ondoren datoz intziri, negar ta garrasiak; galde ta dei, arao ta erantzun, zotin ta adiazko uiol eutai-eziña dirudi.

Eta orrelaxe doa aurrera. Arimek bakarrik, Maitearen atzetik beti. Amairugarren ahapaldiraño ez da agertzen inondik ere Aren erantzunik; arimeak bakarrean diardu deika ta intzirika, epegaitz eta dardarti. Maiteak, egiñ, gezuari ta mundatariak bialtzen dizkio, zer ta nolako dan esanik; baiña areago zauritu besterik ez dagite, il-agiñean utzirik beuren izketa totelez. Etsi-antzera, zurrin ta sail, onela ots: «Ai, nor ni osatu...!» Eta, «oi bizitz!», nola dirauzu ezin bizitz?» «Biotz au, zauritu duzun ezkerro, zergatik ez duzu sendatzen?» «Erakustazu arpegi ori, ta il nazazu gero zeure begiratuaren ederreza...»

Amabi ahapaldi, Maitearen billako bakar-izketa gorian, zalantza ta expai mergatzer ornuak. Auxe dugu lenengo epearen guri-ardatz.

2) *Senar-emaztearen alkartze* (13-15).—Gegoz saiatu ezkerro, arin edo berandu ardieta oi da billa gabiltzana. Arima ere paketa dugu billaketa leikor ondoren. Ur

gardena txirrioka ematen zun iturri aurrean galdezka zegolarik, begiak jaso ta Maitearenakin topoz egin. Ezin du eraman Aren argi-zistaren gogorra, ez bait-dago oraindik bear bezin aratz, bear bezin duin Arekin al-kartzeko, eta pitin batean beintzat, alhoratzeko eskatzen dio xamurki begi oien dir-dira.

Baiña Maitearen abotsa dantzu, orain zaurituak itz dagio lurtar ez dan mintzo zoragarrian. «Itzul zaitetz-diotsa—, uso eder; ona orain zauritua muiño gainean zure egoizearen giro ozkirrian atsegintsua».

Arima-emaztearen zoriona! Barne-osiñeraino sartu zaio goxotasunaren ezitia; lur-tirako gauza ta zer guztiak ere lurrin usaita ta begi-betegarri egin zaizkio, ta aierioiuka ari da, baso, zelai, aize, egazti ta izarro, zurrunbilloan gogoraziz. Pozkariozko abestirik ederrenean gorensten du Maitearen irudi zangarra, izaditik artutako ikur bizi antzagarrien bitartez. Baita gero, ederrik asko, marrastu ere biak alkar artu dutenetik asiriko bizi berria.

Maixu gisa ari da emen gure Sentua, idazkera ere zerbait aldatuz; aurreko ahapaldietan etzun ba erabilli urri baizik izenlagun ta ahar, emen ordea orrako itzal lilluragarriro jautzen ditu laguntzaille tinkoz: «bakar oiantsua», «erreka soñulari», «aize biguna», «gauaro ixila», «bakartegi ozena», «apari ezitza»...

Arima ere osotasun-maillan gorago igon dabil.

3) *Gogo-ekontza* (20-27).—Ona maite-eresi onen unerik arduratsuenen. Maite biak, alkar idoro ondoren ezititan daude, eskuak emanik; emazteak ez du ezertariko zaratarik gura. Mahastia lore baitago, bende urruti azeriak, ez bedi inor mendian agertu, Ipar gaizto ere bego geldirik, judear neskatxak ere ez bezate an ur biltan otsik atera. Maiteak lili tartean ats artu dezan. Senarrak, bere aldetik, «egazti», «basantza», «mendi», «aize», «sargori» ta «abarri oles ta arao dagie ozenki, arren, ormarik ez ukutze-ko eskatuz, Kutunak lasai lo egin dezan. Emaztea baita gogo zun baratzean sartu, ta bertan datza maite dunaren besarte biguñean burua makurturik. Biotz gori bi —Kristo ta arima— alkarri itsatsirik.

Orain ere ba-dakigu unai-kanta ontako antzezlarriak non dauden: «opa zuten baratz atsegingarrian». Emaztea «barneko ardan-gelara» sartua da. Mahasti edo ortuetan ez

al duzute olakorik ikusi? An edango du mintzel goxoa, ardo luzez ondura ere bai, Maitearen eztaietako aparti xuxpergarrian. Edan du, bai, ederki antza; eta ondoren, eberretaldea zaitu naiean, ibarra zear irten dalarik, ez da inondik ageri lengo saldua.

Nai aiña izan zun Emazteak ardotege itzilean; bularra ere antxe eman zion, ba, ta jakite arrigarria. Berak, ostera, zan goztia eskeiñi zion, betikoz Bere Emazte izateko itza emanik. Argi ta garbi aitortzen du ogei ta zarpigarren ahapaldian:

*An nindun ugatzatu,
an irakats zidan ezitza jakintza;
nik, ostera, naizena
oso nion eskeiñi,
betikoz emanik emazteko itza.*

Olerkariak, oi bezela, paupin ta giar margozten dizkigu bi Maiteleen maite-lillurazko ar-emate auek, itz-joko pitxi ta aberaskiz gainezka.

4) *Maite-bizitza* (28-35).—Eta onekero, batubestearenak dira-ta, maitasuna dute jardun ta arazo bakarra; gogo leialez alkar gartsuki maite izan, ez dute beste zeregnik, batasuneko mailla gorenengora iritxi diranetik. Eta jardun ortan surretiko salantza, esturaldi, maite-mintze ta enparau reatasunak dukarzkite gogora.

Emazteari, batez ere, eder ta atsegia zaio heñola Maitea erakartzeko erabilli zitun bide ta maltzurkeriak gomutaraztea; ille bakarra zekarkin lepoan, dardar aizeak jartzean, ta Maitea an gelditu omen zan atri, bere begi batek zauritua. Alderantziz, Ark begiratu zion ta doai-ederrez jantzi zun osorik. Azalez ere len beltzeran zenuu; orain ez, orain so dezaioke lotsakizunik gabe, begia jo zun ezkerre ederrik ipiñi bait-zun ezinbestean.

Alkarri egin zioten ematea osozkoa izan zan noski; arimca, beintzat, kermen ta adore guztiarekin Maitearen mendeko duari; ez du aurrerantzean ahere-zaintzerik, eta lengo lagunak, zelai la belardi zear, ikusi ez ba-dagite, maiteketan ibillirik galdus dala ustotzen bezate. Maitearekin batean «lore ta putel guriza» sortak ere egingo ditu, ots, otoi-menezko egite zoragarria bere burua gora ta griago apaintzen saiatuko da.

Senar-Kristo, berriz, pozikan dago; oso zuria kutzara itzuli baitzaio ahar esea mo-koan dularik. Bakarrean bizi dira, baka-rreran atseden artu ta alkar maite izaniki.

5) *Zeru-min* (35-40).—Azkenengo host ahapaldietan Emaztea mintzo da bakar antzera. Ustetsu agertzen zaigu, baiña ez oraindik oso aserik; eta eskabide berriak dardakio Maiteari; ederrik asko ikusi ditu Arrengan, baiña areago ezagutu nahi azal-tzen.

Maite-billa asi zanean non aurkitu zun adierazi zigun: «ibar-ondo urdiñean», «baratz atsegingarrian», «ardangela izkutuana», «bazo nauka», «maitasuna espatsu baita, toki ixil bakarrago bat gura du oraindik». Senar maitearekin kezka izpirik gabe egon al izateko. Eta bakar-zale ta griña orrek lultzama, bere ustez beintzat leku seguru ta ego-kiagoak diranak gogoratzen dizkio: «ur gardena darion muiñoan», «ango itzalpe barne-koia», «goi dagon artzuloan»...

Antxe gordeko diran, ziurrik aski. Baiña, zu ere naita ez ba-litz, izanen irazanaren mugak igaro ta arimak urrutit bezela erdi-ikusten duen edonokirainoa iritxiko dira.

Atsegiñezko baratzaren bestekaldean, oian itsuan aurrera joanik, zerua haita aurkitzen. Eta Kristok an emango dio beste egunez erakutsi ta eman ziona:

*Aizearen ats mea,
txindor eztiaren maite-leloa,
ibar ta ango giroa,
izar dan gau narean
min bage erretzen dun sugar-lanboa.*

Auxe dugu, urrats luzeka, Gurutzeko Joan denaren mistika-era jator berezia, berberak oarrez ta biziz ikasia ta guri eredugarri utzi ziguna. Izan ere, barrendegian ba-dugu olako leku ixil txanbeliña; ortxe bildu oi dira maiz hi maitale —gogo ta Kristo—, eta giza-mingaiñak esan ezin aiñako gertakariak izan oi dituzte, lurreko loiez arimca garbitu ta maite-suan gorituz doanean.

Aita Onaindia



GURASOAK

Gaur mundua txarto ba'dabil, ez munduari errua hota. Mundua Jaungoikoak egiña dozu, ta Arek egiña denez, ona ta ederra.

Geu gara txarrak, eta mundua txarto dabilela esan oi dogu. Ondu gaitozan, eta mundua berez-berez ondo ibilliko. Umeak batez be ondo azi bear dozuez. Gero orreik izango dira munduko giltz, munduaren artezkari.